



Astigarragako Udala

Obrak eta Zerbitzuak – Obras y Servicios
obraketazerbitzuak@astigarraga.net

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA KONTXA ETXEBERRIA PLAZA 7, 8, 9 ZENBAKIAN KOKATUTA DAUDEN UDAL TITULARTASUNeko 5 ETXEBIZITZETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOEN ETA SUKALDEKO ALTZARIEN HORNIDURA ETA MUNTAIA KONTRATATZEKO.

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea Kontxa Etxeberria plaza 7, 8, 9 zenbakian kokatuta dauden udal-titulartasuneko 5 etxebizitzetako etxetresna elektrikoaren eta sukaldeko altzarien hornidura eta muntaia izango da. Aipatutako etxebizitzak honako hauek dira:

- Kontxa Etxeberria plaza 7, lehen solairua, A etxebizitza
- Kontxa Etxeberria plaza 7, bigarren solairua, A etxebizitza
- Kontxa Etxeberria plaza 8, hirugarren solairua, A etxebizitza
- Kontxa Etxeberria plaza 9, hirugarren solairua, B etxebizitza
- Kontxa Etxeberria plaza 9, laugarren solairua, B etxebizitza

Aipatutako etxebizitzaren planoak 1.-5. eranskinetan daude

2. LIZITAZIO PREZIOA

Baldintza-agiri honetan deskribatutako altzarien, etxetresna elektrikoaren eta gainerako elementuen horniduraren eta muntaiaren lizitazio-prezioa **20.000 euro izango da, BEZik gabe**

3.- EGIN BEHARKO DIREN LANAK:

Etxebizitza bakoitza honela hornituko da:

A.- SUKALDEKO ALTZARIAK

Batez beste 3,60 m-ko luzerako sukaldearen aurrealde bat edo bi, goi- eta behe-altzariz osatua, ke-kanpaian izan ezik, baldin eta ke-kanpaia apaingarria



Astigarragako Udala

Obrak eta Zerbitzuak – Obras y Servicios
obraketazerbitzuak@astigarraga.net

bada. Altzariak FAGORren CAPRI, XEY motakoak edo antzekoak izango dira eta zuzenean geruzatutako atekak (melanina hidrofugoa) izango dituzte, lau aldeetan PVCko ertza dutela. Atearen eta ertzaren kolorea hautatu ahal izango da eta koloreak elkarrekin konbinatu ahal izango dira. Sukaldearen aurrealde horiek honako elementu hauek edukiko dituzte:

- Behe-altzari trinkoak gainaldean estalki bat dutela, estalki horren gainean jarriko da sukalde-gainekoa. Atzealdean behar adinako lekua izango dute saneamendu-hutsaldirako ura, gasa eta abar eramateko hodian igarobidea ahalbidetzeko, moduluari ukituak egiteko premiarik izan gabe.
- Gutxienez 20 mm-ko lodierako eta 60 cm-ko hondoko kuartzo trinkoko sukalde-gainekoa behe-altzarien gainean. Silestone, compac eta quarella marka komertzialekoa edo antzekoa izan daiteke, baina ezaugarri teknikoen ziurtagiria eman beharko da.
- 0,90 metro inguruko altuerako goi-altzariak, betiere aireztapen-baldintzek horrelakorik ahalbidetzen badute. Altuera horretako altzariak jarri ezin badira, 0,70 metroko altuerakoak jarriko dira. Hornitzaileak justifikatu egin beharko du altuera horretakoak ezin direla jarri.

Altzarien apal guztiek eta zintzilikariak blokeatzeko sistema bat izango dute eta sistema horri esker ez dira irristatuko edo kulunkatuko, eta erabateko segurtasuna emango du sistema horrek.

Hainbat helduleku, zokalo, profil eta abar eskainiko dira erraz mantentzeko modukoa den kolore-gama zabal baten artetik aukeratzeko.

B.- ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Etxebizitza guztiak honako etxetresna elektriko hauek hornituko dira:

- Edukiera handiko LABEA, gutxienez 55 litroko bolumen erabilgarria ez ezik, erreketak-programak, barruko argia, ZOB10401WK motako edo antzeko motako aginte independenteak ere badituena.
- BITROZERAMIKAZKO PLAKA, marko herdoilgaitza edo alakatua izateaz gain, ukimenezko aginteak, segurtasuneko termostatoa duten hiru foku, hondar-beroko pilotuak eta 0-6 mailako potentzia-hautatzailea dituen. ZEV6330FBA motakoa.
- 60 cm-ko KE-KANPAI apaingarri herdoilgaitza, gutxienez bi abiadura, iragazki metalikoak eta ordu bakoitzeko 300 m³-ko xurgapen-edukiera dituen. ZHC2650XA motakoa edo antzekoa.
- ONTZI-GARBIGAILUA. A+ energia-sailkapena izateaz gain, gutxienez 5 programa eta 3 tenperatura, 600 mm-ko zabalera, 12 zerbitzuko mahai-



Astigarragako Udala

Obrak eta Zerbitzuak – Obras y Servicios
obraketazerbitzuak@astigarraga.net

tresnentsako edukiera IEC (2010/30/EC), garbiketaren eraginkortasuna A, lehorketaren A energia-sailkapena, zarata-maila dB(A) re 1 pW (2010/30/EC) 50 dB(A)-tik beherakoa duena, eta sare elektrikora, ur-hargunera eta hustubidera konektatuta dagoena. ZDF21001WA motakoa edo antzekoa

- ARROPA-GARBIGAILUA. Gutxienez 1,000 r.p.m. duena, A+ energia-eraginkortasuna, garbiketaren eta zentrifugazioaren efikazia handiagoa izatea balioetsiko da, 6 kiloko edukiera, karga aldakorra, hotzeko ikuzketa eta 32 cm-ko atexka, sare elektrikora, ur-hargunera eta hustubidera konektatuta dagoena. ZWG6100K motakoa edo antzekoa.
- HOZKAILUA. Gutxienez 185 cm-ko altuerako konbia edo antzekoa eta tenperatura-erregulazioa eta A+ energia-sailkapena duena, ZRB34315WA motakoa edo antzekoa.

C.- ITURGINTZAKO BESTE ELEMENTU BATZUK

- HARRASKA. Altzairu herdoilgaitzezkoa, gutxienez 45x40ko dimentsioko barrunbea duena eta hustubidera hodi bidez konektatutako gainezkabidea, 2"-ko balbula eta ixteko tapoia dituena.
- TXORROTA. Iturri birakaria eta aireztagailua dituen aginte bakarreko txorrota kromatua, elikatze-hodi malguekin instalatua hormako etetegiltzetaraino.
- Ke-ebakuazioa ke-kanpaitik 125 mm-ko diametroko confordec hodi bidez edo antzeko hodi bidez egindako instalazioraino, erabat instalatua.

4.- BALDINTZAK

Adierazitako etxebizitzaren planoen zerrenda eta elementu bakoitzak eduki behar dituen neurri zehatzak egiazkoak direla eta zuzendu direla egiaztatuko du esleipendunak.

Sukaldeak eta 3. ataleko gainerako kontzeptuak erabat muntatuta eta errematatuta emango dira, funtzionatzeko moduan daudela, doikuntza eta prestaketa gehiagoren premiarik izan gabe.

Sukaldeak erabat muntatuta emango dira, dagozkien elektrizitate-konexioak, hustubideak, ur-harguneak, txorrotak, keak ateratzeko bideak eta abar erabat bukatuta dituztela eta etxetresna elektriko guztiak badabiltzala, hau da, bizitzen jartzeko moduan. Era berean, behar diren probak egingo dira martxan jartzeko eta jariorik ez dagoela egiaztatzeko.



Astigarragako Udala

Obrak eta Zerbitzuak – Obras y Servicios
obraketazerbitzuak@astigarraga.net

Instalazioa bukatu ondoren, instalazio eta etxetresna elektriko guztiak martxan jarriko dira behar bezala dabiltzala, jariorik ez dagoela eta abar egiaztatu ahal izateko. Hornitzaileak muntatzaile bat jarriko du Udalari laguntzeko hirugarrenek (konpainia hornitzaileak eta abar) egindako azterketak daudenean.

Instalazioa bukatu eta testatu ondoren, Onarpen Akta bat sinatuko da. Ordura arte hornitzailea izango da salgaiaren erantzulea, eta hornitzailearen ardura izango da kontratatutako salgaia zaintzea. Ondasunak onartzeko moduan ez badaude, hori adieraziko da Onarpen Aktan, eta behar diren jarraibideak emango zaizkio hornitzaileari ikusitako akatsak konpon ditzan edo hornidura berria eman dezan itundutakoaren arabera.

Sukaldeak eta altzariak instalatu eta muntatu ondoren geratzen diren elementu guztiak kendu beharko dituzte hornitzaileek, eta sortutako hondakinak indarreko araudiaren arabera kudeatu beharko dituzte.

Hornitzailea arduratuko da salgaia garraiatzean eta sukaldeak muntatzean etxebizitzetan sortutako akatsez.

5.- BERMEAK

Oro har, etxetresna elektrikoek eta altzariek 5 urteko bermea izango dute. Berme horretan piezak eta joan-etorriak sartzen dira.

Gainera, 2 urtean egindako lanaren guztizko zenbatekoaren % 5eko abala edo fidantza jarriko da. Epe hori amaitutakoan, hornitzaileak bermea itzultzeko eskatuko du, eta instalazioaren arduradunak txostena egin ondoren itzuliko da berme hori.

Denbora-tarte horretan instalazioaren inguruan gertatzen diren gorabehera, akats eta erreklamazio guztien berri emango dio hornitzaileak udal arduradunari. Gorabeherak kudeatzen laguntzeko, hornitzaileak telefono bakarra emango die erabiltzaileei eta Udalari, eta telefono horrek entregatutako instalazioak osatzen dituzten elementu guztiei buruzko erreklamazio guztiak bideratzeko balio izango du.

Erabiltzaileak irizten badio proposatutako gorabeheraren bat ez dela behar den prestasunez eta/edo kalitatez konpondu, instalazioaren udal-arduradunarengana joko du arduradun horrek, hornitzaileari entzun ondoren, arazoaren premia eta larritasuna balioetsi ditzan eta parametro horien arabera, egin behar diren lanak eta lan horiek egiteko behar den gehieneko epea zehaztu ditzan. Hornitzaileak ez baditu jasotako aginduak betetzen, Udalak hirugarren enpresa bati agindu diezaioke konponketa egiteko, hornitzaileak jarritako abalaren kontura.

6.- LANEN ZUZENDARITZA ETA JARRAIPENA.



Astigarragako Udala

Obrak eta Zerbitzuak – Obras y Servicios
obraketazerbitzuak@astigarraga.net

Kontratua Astigarragako Udalaren arkitekto teknikoaren zuzendaritzapean eta arkitekto horrek esleipendunari interpreta ditzan ematen dizkion jarraibideen arabera egikarituko da; Udalaren arkitekto teknikoak lanen jarraipena egingo du etengabe eta zuzenean, lanak behar bezala egiten direla zainduz.

7.- B GUTUN-AZALEAN AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

“Dokumentazio teknikoa” izeneko B gutun-azalean honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Instalazioak egiteko erabili behar diren materialen eta etxetresna elektrikoen deskribapena, zehaztapen teknikoak barne.
- Enpresak duen lantalde teknikoaren eta baliabideen deskribapena.
- Entregatzeko epea
- Prestazio gehigarriak.

8.- PROPOSAMENAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK.

KONTZEPTUA	PUNTUAK
Prezioa	38
Eskaintzan sartzen diren materialen eta etxetresna elektrikoen kalitatea (sukalde-gainekoak eta abar)	8
Entregatzeko epea, enpresaren kaudimena eta ezaugarriak eta bestelako prestazio gehigarriak.	4
GUZTIRA	50